

Tolosaldea Garatzen, S.A.eko epe luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdiko hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrendaren Lehendakaritza-ebazpena

Tolosaldea Garatzen, S.A.ko Administrazio Kontseiluak 2022ko abenduaren 12an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, 20/2021 legearen 6. eta 8. Xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako Enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren oinarriak onartu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (245. Zenbakia, abenduaren 28koa) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (2023ko abuztuaren 10ean) Tolosaldea Garatzen, S.A.ko honako hamabi plazararako:

- Enpresa Saileko arduraduna.
- Turismo Saileko arduraduna.
- Enpresa Saileko teknikaria.
- Ingurumen eta toki-garapeneko teknikaria lanaldi osoan.
- Ingurumen eta toki-garapeneko teknikaria %65eko lanaldian.
- Kontabilitate teknikaria.
- Udalentzako zerbitzuen arduraduna.
- Migrazio eta Aniztasunaren arduraduna.
- Kontsumitzaileen Bulegoko arduraduna.
- Enplegua Sustatzeko Saileko arduraduna.
- Lehiakortasuneko eta turismo-produktuko teknikaria.
- Enplegu Bulegoko teknikaria.

Kalifikazio prozesua amaitu ondoren 2023ko urtarrilaren 8an argitaratu zen iragarki taulan eta web orrian epaimahaiaren behin betiko kalifikazioa, destinoak aukeratzeko 10 lan eguneko epea zabalduz. Destinoak aukeratzeko epea amaitu den honetan, hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrenda egingo da, eskatutako baldintzak, hautagai bakoitzaren puntuazio ordena eta adierazitako lehenetsunak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Lehendakariak oinarri orokorretako 13. Puntuan adierazitakoaren arabera, zera

EBATZI DU

1.- Egonkortze prozesuan hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrenda onartzea.

Egonkortze prozesuan hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrenda honakoa da hautagai bakoitzaren puntuazio-ordena eta destino aukeraketan adierazitako lehenetsunak kontuan hartuta:

PLAZA	HAUTATUTAKO PERTSONA	PUNTUAK
Enpresa Saileko arduraduna.	1. Unai Andueza Iraeta	100
Turismo Saileko arduraduna.	1. Olatz Ilarregi Martiarena	100
Enpresa Saileko teknikaria.	1. Aimar Arzelus Telleria	96,42
Ingurumen eta toki-garapeneko teknikaria lanaldi osoan.	1. Beñat Bergara Tejeria	100
Ingurumen eta toki-garapeneko teknikaria %65eko lanaldian.	1. Leire Ugalde Ezeiza	100
Kontabilitate teknikaria.	Hutsik	-
Udalentzako zerbitzuen arduraduna.	1. Garbiñe Mendizabal Ormazabal	100
Migrazio eta Aniztasunaren arduraduna.	1. Amaia Iturri Urquia	53,58
Kontsumitzaileen Bulegoko arduraduna.	1. Ainhoa Orrantia Balado	100
Enplegua Sustatzeko Saileko arduraduna.	1. Leire Otaegui Larrarte	100
Lehiakortasuneko eta turismo-produktuko teknikaria.	1. Aloña Garmendia Osinalde	100
Enplegu Bulegoko teknikaria.	1. Lierni Gorostidi Loidi	58,40

BIGARRENA.- Deialdiko oinarri orokorretako 13. puntuari jarraiki, behin-behineko zerrenda hau Tolosaldea Garatzen, S.A.ko web orrian eta iragarki taulan argitaratu da 2024ko urtarrilaren 23an eta hurrengo egunetik aurrera, hautagaiei 10 egun balioduneko epea eman da behin-behineko emaitza horien aurka dagokion erreklamazioa aurkezteko: hau da, **2024ko otsailaren 6 arte.**

Tolosan, 2024ko urtarrilaren 23an